

## KOLDO TELLITU

Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba-elkarteko burua, hots, Ikastolen Elkartekoa.

| ARITZ GALARRAGA |

Argazkia: Iñigo Azkona



# «Gurea baino publikoagorik ba al dago?»

**Nik entzun dut ikastolak ez direla eskola pribatuak.**

Galdera da: “Gurea baino publikoagorik ba al dago?”. Herritik sortutakoak gara, ekonomia sozialean oinarritutakoak, irabazi asmorik gabekoak eta zerbitzu publikoa eskaintzen dugunak.

**Baina, sosik ezean, normala da administrazioak bere ikastetxeak salbatu nahi izatea.**

Ez, administrazioa Hezkuntza Sistema osoaz kezkatu behar da, hezkuntza eskubidea bermatzeaz eta hezkuntza den zerbitzu publikoa eskaintzen duten ikastetxe guztiei laguntzeaz.

**Ikastolak eta krisi ekonomikoa. Txarra da harremana, edo ez hainbeste?**

Ona ez, baina aurre egiteko errezetarik eraginkorra dugu, Ikastolen arteko elkartasuna, eta herri bat, Euskal Herria, laguntza eskatzen diogun orotan erantzuten duena, badakielako nor garen.

**Hezkuntza munduan erreferentzia...**

Gure proiektuan oinarritzakoa da Ikerketa+Garapena, eta oraintxe bertan Euskal Curriculumaren garapena. XX. mendeko ikastolen erronka euskara izan zen moduan, Euskal Curriculumak da XXI. mendeko gure erronka.

**Eta jendarteak eta eskolak ez dute euskalduntzen. Ikastolek ere ez?**

Gure esparruetan euskararekiko zaletasuna-

ren tentsioa mantentzen dugu, baina inguru sozial osoan euskararen egoera hobetuz ez badoa, burbuila faltuan ari gara.

**Ikastolak eragile sozial izan behar baitira.**

Hilabete bukaerara iritsi behar den eragile soziala. Baina bere izaera herrikoiaztatik Euskal Herriaren garapenaren subjektu aktibo eta kooperantea da, bere hezkuntza sistema propioarena, euskararena eta bere kulturearena.

**Eztabaidak izan dira Elkartean, antolamendu ereduari, botere banaketari buruzkoak.**

Duela hiru urte, zauriak sendatzen ari dira. Antolamendu eredu adostasun zabalarekin definitzeko gai izan ginen, baina karguen aukeraketa ez ordea.

**Egia al da ezker abertzaleak zuzentzen dituela ikastolen ildoak?**

Ez. Beste kontu bat da zelako interesa erakusten duten gure planteamenduekiko. Eta horrek harreman estu eta arina mantentzera garamatza. EAJ eta PSEekin bezala.

**Zergatik azaldu dira haserre orduan Elkarteko kide batzuk?**

Mugimendu bizi eta anitza gara, eta guztiok helburu bakarra dugun arren—ikastolak— desadostasunak daude estrategiei ala mugimenduaren karakterizazioari dago-kionean. ■

